

"Martin Ugaldek euskara eta herria zituen ardatz"

Jean Haritxelhar

Deia, 2004-10-06: 57.

Deustuko Unibertsitatean "Euskararen geroa" izenburupeko hitzaldiaren aurre-aurretik hartu gaitu Euskaltzaindiako lehendakari Jean Haritxelharrek Martin Ugalderi buruz hitz egiteko. Euskararen batasuna mamitzen hasi zen 60eko hamarkadan ezagutu zuten elkar. Harrez geroztik euskararen aldeko bataila askotako lankide ezezik, adiskide ere izan dira biak ala biak.

Zer nabarmendu zenuke Martin Ugalde?

Martin Ugaldez bi gauza ukan ditut beti gogoan: nahiz hemen bizi ala erbestean, herria, Euskal Herria, eta euskara zituela bere bizitzaren ardatz.

Zein izan da euskarari eta euskal kulturari egin dion ekarpena?

Bere ibilbidea eta ekarpenaren berri ematen digutenak idatzi dituen liburuak. Kazetaritzan egin duen lana ere nabarmentzekoa da eta egun batean hori behar den bezala erakutsiko dela uste dut, nor izan den, zer izan den, zer garrantzi handiko gizona izan den...

Arlo asko jorratu bazituen ere, nagusiki kazetaritzat zuen bere burua.

Kazetaritzan bide berriak ireki ditu. Berak bizi zituen garaiak oso zailak ziren eta euskaldunek ez baldin bazuten beren hizkuntzari atxikiak zirela, ez zen bertzerik. Euskara orduan zapaldua zen, ez zen ezagutua eta gudukatu egin behar zen eta Martinek hori egin du eta erran dezaket bere bizitza guztian egin duela hori.

Kazetaritzan egindako lanak merezi duen errekonozimendua izan al du?

Beharbada ez. Zuek gazteok pentsatu behar duzue pixka bat zer zen orduko giroa, kazeta gutti ziren, ez zen egunkaririk eta, beraz, azaltzen zena hala zen bezala kaleratzen zen. Orain bada euskarazko kazeta, egunero ikusten dugu euskara idatzia egunkari baten bitartez. Zuentzat hori normala da, guretzat ez, guretzat urrats ikaragarria da, euskarazko irratia eta telebistak urrats handiak direla uste dugun bezala. Horregatik uste dut merezi duela Martinek euskarazko kazetaritzaren arloan egindako lana aintzat hartzea eta aztertzea.

Kazetaritza lanez gain, idazle lanetan ere aritu zen.

Idazle ona zen, euskara menperatzen zuen eta hori bere lan guztietan azaltzen zen, berdin saiakera izan zein eleberria edo narrazio laburra.

Euskara batua gorpuzten hasi zeneko garaietan ezagutu zenuten elkar. Zertan zebilen Martin Ugalde garai hartan.

Gorabeherak gorabehera, Martin bat zetorren urte haietan Euskaltzaindiak batuaren alde egiten ari zen lanarekin. Ezin da eta ez dut nahi pertsona bakar batek egindakoaz hitz egin, Euskaltzaindiak batzordeetan eta taldeka egiten duelako bere lana, unibertsitarioez, katedradunetz edota irakasleez osatutako batzordeak. Garai batean pentsatzen zuten ez zela posible hizkuntza batu baten egitea, hizkuntza artifiziala izanen zela eta horrelakoak entzun genituen. Denboraren joan-etorriak erakutsi du horrek ez zuela funtsik eta batuak lagundu egin diola euskarari.

Aldeko eta aurkako jarrera horien artean zubiak jartzen saiatu zen.

Martin jende gehienarekin adiskide zen, gizon lainoa, gizon gozoa zen. Eta hala behar dugu zan gure artean. Horrekin ez dut esan nahi ez dela eztabaidarik izan behar, eztabaida beharrezkoa da eta berak ere ukan zituen. Mitxelenak, euskalkien aferaren gainean, erraiten zuen batzuk galduko dutela, baina denek beharko dutela zerbait galdu, beti ere euskara batua indartzeko.

Nola jokatu behar da euskararen inguruan indarrak batzeko?

Hizkuntza denona da, euskara ez da bakarrik euskaldunena, erdalduna ere da Euskal Herriko altxorra baita eta hori denok ulertu behar dugu.

Politikakeriak, baina, dena kutsatzen du, hizkuntza bera ere, eta euskararen beraren zabalkunderako oztopo bilakatzen da.

Hizkuntza ez dago politikaren planoan, hizkuntza beste zerbait da, eta ez batzuk erabili behar eta beste batzuk aurka egin behar. Bi plano ezberdin dira eta hizkuntzak berea behar du. Euskara ez bakarrik euskaldun, baizik euskotarren –Euskal Herrian bizi diren guztien– ondare baita.